



Euskararen belaunaldiz belaunaldiko  
transmisioa indartzeko modulua

**HADE**

**IRAKASLEAREN LIBURUSKA**

**IPUINEN  
KONTAKETA**

Solasean eta Jolasean izeneko material hau HABEk Eusko Jaurlaritzaren Jarraipen-programaren baitan sortutakoa da. Programa horrek erabilera handiagoa eta hobe indartzeko neurriak hartzea du eginbide, lehentasuna emanez ahozko erabilerari eta belaunaldi gazteenekin harreman hurbilagoan dauden belaunaldi heldu eta euskaldunei. Eginbide horretan hiru lan-ardatz jorratzea du helburu: herriarren sentsibilizazioa, belaunaldi gazteenen eskolaz kanpoko erabilera areagotzea eta, helduen hizkuntz gaitasuna hobetuz, beroien erabilera handiagotzea.

HABEren berariazko jardun-esparrua hizkuntz trebakuntza izaki, esku artean dituzun ikas-modulu hauek sortzea deliberatu genuen. Material hau euskaldun helduei zuzendutakoa da, eta belaunaldi gazteenekin euskara erabiltzeko jardun-gaiak ditu abiapuntu. Gai horiek landuz, hizkuntz gaitasuna bera ere landu nahi da, eta, orobat, helduek haur eta gaztetxoekin dituzten harremanetan euskara gehiago eta hobe erabiltzea.

Material hau sortzerakoan, beraz, lehentasuna ahozkotasanari eman nahi izan diogu, nahiz eta gaien lanketan, gutxi-asko, trebetasun guztiak erabiltzen diren.

Erabiltzaileen eskuetan dago, beraz, material hori erabiltzea eta egokitzen joatea, eta, noski, hobekuntza-proposamenak egitea, HABEk horiek guztiak kontuan har ditzan. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa indartzen joateko beste modulu batzuk sortzen lagunduko ahal du!

Jokin Azkue Arrastoa  
HABEren zuzendari nagusia

#### EGILEAK:

Proiektuaren arduraduna: **Xabier Elortza** (HABEko Programa Berezien arduraduna)  
Didaktikaria: **Agurtzane Maiz** (HABEko teknikaria)  
Diseinua eta maketazioa: **Olaia Ubeda**  
**Sabin Arzelus** (HABEko teknikaria)  
**Alex Mungia** (HABEko teknikaria)  
**Mertxe Salegi** (HABEko idazkaria)

Gure esker ona, neurri batean edo bestean, modulu hau egiten lagundu diguten guztiei:

Pello Añorga, Joxe Arratibel, Luisa Castrillo, Itziar Garitagoitia, Juan Kruz Igerabide, M. Jose Insausti, Arantxa Iturbe, Ixiar Sarasola, Koro Urbietta eta Tomasa Uriarte.

## 1. SARRERA

1. Helburu nagusiak	5. or.
2. Metodologia	5. or.
• Saioak gauzatzeko iradokizunak	6. or.
• Kontuan hartzeko beste irizpide batzuk	9. or.
3. Bibliografia	10. or.

## 2. SAIOAK

### 1.- SAIOA

1. Jarduera	12. or.
2. Jarduera	15. or.

### 2.- SAIOA

3. Jarduera	16. or.
4. Jarduera	19. or.

### 3. SAIOA

5. Jarduera	22. or.
6. Jarduera	23. or.

### 4. SAIOA

6. Jardueraren jarraipena	24. or.
---------------------------	---------

### 5. SAIOA

7. Jarduera	25. or.
8. Jarduera	26. or.

### 6. SAIOA

9. Jarduera	27. or.
10. Jarduera	28. or.
11. Jarduera	29. or.

### 7. SAIOA

11. Jardueraren ondokoa	30. or.
12. Jarduera	30. or.
13. Jarduera	31. or.

### 8. SAIOA

14. Jarduera	33. or.
15. Jarduera	33. or.

### 9. SAIOA

16. Jarduera	34. or.
17. Jarduera	35. or.
18. Jarduera	36. or.

### 10. SAIOA

19. Jarduera	37. or.
--------------	---------

### 11. SAIOA

19. Jardueraren jarraipena	38. or.
20. Jarduera	39. or.

### 12. SAIOA

Azken jarduera	41. or.
Ebaluazioa	41. or.

# 1

## Sarrera

Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioan ipuinen kontaktak daukan garrantzia handia da. Ipuinak balore hezitzailea du umearentzat; mundua, bere zentzu zabalean, ezagutzen laguntzen diolako eta ezagutza honen bidez hizkuntza ere eskaintzen diolako.

Hori horrela da hizkuntza normalizatua daukan gizarte orotan. Baina, gurean hiztunek hainbat eragozpen dituzte hizkuntza transmititzerakoan, besteak beste, elebidun direlako hizkuntza minorizatu baten testuinguruan.

Gurasoen arteko solasaldietan, bestalde, ipuin-kontaktaren gaia sortzen denean, hainbatek azpimarratzen du zenbateko garrantzia duen eta zein gustura egoten diren umeak ipuinak entzuten... baina, era berean, askotan entzuten ditugu beste honako iruzkinak ere: "nik ez daukat batere graziarik ipuinak kontatzeko" edo "niri bukatu zait errepertorioa eta ia ez dakit zer kontatu", edota "euskaraz ez naiz oso ondo moldatzen eta erdi-euskaraz eta erdi-gaztelaniaz kontatzen ditut" eta abar...

Orrialde hauetan gaia gurasoekin lantzeko proposamena bildu dugu. Jakin badakigu, gaiak hamaika alderdi gehiago ere badituela, baina berorren luze-zabalak hautu bat egitera eraman gaitu, halabeharrez.

Modulu honen bidez ekarpen txiki bat egin nahi dugu euskararen jarraipen-programaren baitan. Ipuinak kontatzeak gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioan daukan garrantzia azpimarratzea dugu helburu, eta, orobat, ipuinak egoki kontatzeko hainbat baliabide hizpide eta hausnargai jartzea. Era berean, umei ipuinak kontatzen dihardutenen hizkuntz gaitasuna hobegotzen laguntzea, moduluak ematen dituen aukeren arabera, jakina.

Egiturari dagokionez, modulua saioetan eta jardueretan dago antolatua. Jarduerak eginkizun edo ataza osoa biltzen du, eta, saioak, aldiz, lanaldiaren iraupena. Saio bakoitzari ordu t'erdi / bi ordu bitarteko iraupena aurreikusi diogu, nahiz eta jakin badakigun denbora aurreikuspenak horrelakoetan erreferentzia modura bakarrik eman daitezkeela.

Bestalde, eranskinez osatutako hirugarren liburuska bat ere eratu dugu, irakaslearentzat lagungarri izango delakoan. Bertan aurkituko ditu irakasleak hainbat jardueretako erantzunak, ipuinen transkripzioak eta jarduerak osatzerakoan langai izan ditugun helburu eta edukiak.

## 1.- HELBURU NAGUSIAK

- ✓ Seme-alaben heziketarako ipuinak duen alderdi psikopedagogikoaren garrantziaz jabetzea.
- ✓ Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioan ipuinak kontatzeak duen garrantziaz jabetzea.
- ✓ Testuinguru minorizatu batean hizkuntz ukipen-egoeran egindako ipuin-kontaktetaz jabetzea.
- ✓ Euskaraz ideiak, esperientziak eta sentimenduak adieraztea; batez ere, eztabaida eta elkarriketaren bitartez.
- ✓ Komunikazio-egoera ezberdinetan euskaraz hitz egitea, eta ahozko hizkuntzaren oinarrizko ezaugarriak errespetatzea –ahoskatze, gramatikazko egitura, lexiko eta abar poliki-poliki zuzenduz –.
- ✓ Trebatzeaz gain, beren hizkuntz gaitasun eta gabezien neurriaz jabetzea.
- ✓ Euskararen erabilera eta errejistro ezberdinak ezagutzea: noiz erabili euskara batua, noiz euskalkia argi edukiz.
- ✓ Gurasoen eta seme-alaben arteko hizketa-gaiak eta guneak ugaritzeko ipuin-mota ezberdinak kontatzen ikastea.

## 2.- METODOLOGIA

Euskararen erabilpen komunikatiboa dugu oinarri. Horrela, helburuak lortzeko, eginkizun jakin bat egiteko proposatzen zaie ikasleei, nahiz eta azkeneko produktuaren xehetasunak berek erabaki beharko dituzten.

Produktu hori egiteko, euskara erabiliko dute, hau da, nahitaezko izango dute euskaraz jardutea, behar duten informazioa eskuratzeko eta igortzeko. Modu horretan, eskuartean duten eginkizunari eskainiko diote arreta osoa, hots, eginkizun horretan ari diren bitartean ikasi eta hobetuko dute hizkuntza.

Bestalde, ezinbestean erreparatuko diegu hizkuntzaren ikuspegi testualari eta azterketa pragmatikoari, testuingururik gabe ez baitago ezer aztertzerik komunikazio-prozesuetan.

Komunikatzeko gaitasuna hobetzea dugu helburu, ahalik eta komunikaziorik eraginkorrena sustatzeko. Komunikazioaren joaneko testuak, esanak, hitzak, etab. ulertu eta sortu ahal izateko, hiztunak eskura izan behar ditu hainbat ahalmen eta era desberdinetako zenbait ezagutza. Honako gaitasun hauen jabe izan behar da komunikazio egoki bat bideratzeko:

1. *Hizkuntz gaitasuna (edo gramatika-gaitasuna)*. Hizkuntzaren gutxieneko ezaguera.
2. *Gaitasun pragmatikoa*. Testuaren inguruko egoeraz eta nolakoaz (lekua, unea, solaskideak, komunikazio-asmoa...) jabetzeko gaitasuna da; adibidez, esaera zahar, errefrau, amaitu gabeko esaldi, ironiaz esandako, etab. beren esanahi zehatzean ulertzea.
3. *Gaitasun paralinguistikoa*. Komunikazioan hitzik gabeko elementu lagungarri asko erabiltzen ditugu: keinuak, mugimenduak, ahotsaren gorabeherak, etenak...
4. *Gaitasun entziklopedikoa (edo munduaren ezagutza)*. Solaskideek munduaren eta gauzen ezagutza konpartitzeak izugarri eraten du komunikazioa. Esate baterako, seme-alaba "kontu korronea gorri daukagu" esaeraz ez da jabetuko, munduaren ezagutza urria baitu oraindik.
5. *Gaitasun diskurtsiboa*. Testuak eta berbaldiak ez dira osatzen perpausak elkarren atzean iladan jarriz. Komunikazio-egoerarekin (non, noiz, zertaz, zertarako...) bat datozen enuntziatu koherente, zentzuzko, egituratu eta eraginkorrak sortzeko gai izan behar du hiztunak.

## 2.1.- SAIOAK GAUZATZEKO IRADOKIZUNAK

### 1 Lanean hasi aurretik. Metodologiazko oharrak.

✓ *Informazioa*. Moduluko partaideei adieraziko zaie taldeka edo bakarka lan egingo dutela saioetan, eta hainbat eginkizun gauzatu beharko dituztela, azken xedea lortzeko. Nahiz eta irakasleak ez duen alferrikako azalpen luzerik emango, ikasleek harengana joko dute zenbait eragozpeni aurre egiteko. Horrela, ikasleak berak aurkituko ditu eduki berriak, bai aurreikusitako ekintzen bidez, baita modulukideek sarrien egindako okerren ondorioz taxuturiko jarduera didaktiko berrien bitartez ere.

✓ Oro har, erroreetatik ikasten dugu gizakiok, eta hizkuntz eskurapenari edota hobekuntzari dagokienez ere beste hainbeste esan dezakegu. Horrela, azken urteotan, ikasleak egiten dituen erroreekiko jarrera erabat aldatu da metodologian. Lehen, erroreak seinale txarra ziren, ikasten ez den seinale, alegia. Gaur egun, berriz, hizkuntza eskuratzen ari den seinaleztat hartzen ditugu. Gainera, ikasleen jarduera ebaluatzeko ezinbestekoa dugu erroreen analisisia. Izan ere, irakasleak analisi sistematikoa egiten badu, ezarritako helburuaren arabera ikaslea noraino

ailegatu den eta, ondorioz, zenbat geratzen zaion lortzeko jakingo du.

Eta, bestalde (nolabait garrantzizkoena), huts egitea ezinbesteko prozedura du ikasleak, ikasten edo hobetzen ari den hizkuntzaren funtzionamenduaz egiten dituen hipotesiak egiaztatzeko modu bat baita. "Errorea" estrategia bat da, eta ikaskuntz prozesuan erabiltzen den prozedura aktibo eta positibotzat hartzen dugu.

Metodologiaren alderdi hezitzaile-eraikitzaile hau sustatu nahi dugu saio hauetan, hau da, era positiboan eta ikasleekin bat eginda, okerretatik ikasteko asmoa gauzatu. Hortaz, moduluan zehar azaldutako akatsei ahalik eta etekinik handiena atera behar zaie, bai okerren jatorria aztertuz, bai ikasleei hausnarraraziz, bai irakaslearen lan egiteko modua berrikusiz. Ikuspegi malgua eta, ondorioz, programazio irekia behar ditugunez, egiten dituzten okerrak zuzentzeko jarduerak txertatuko ditugu, behar ahalean, etenik gabeko prozesu dinamikoan. Prozesu didaktikoan aurrera egiteko, egokitzeko ahalmena eduki behar dugu. Horretarako, irakasleak akatsik handienak eta usuenak jasoko ditu, besteak beste.

Ikuspegi komunikatiboan oinarrituta, errore baten larritasuna komunikazioa oztopatzen duen neurriaren arabera izango da; hortaz, ikasleek igortzen dituzten mezuen onargarritasuna ebaluatu behar dugu. Baina, eginkizun hau ez denez batere objektiboa, larritasuna ebaluatze-ko bi faktore hartuko ditugu kontuan: ikaslearen profila eta beharrizan linguistikoak. Ildo horretatik, erroreak larritasuna neurtzeko bi parametreri errepara geniezaieke:

1. *Maiztasuna*: Denbora jakin batean ikasle batek errore bera egiten duen aldi-kopurua.
2. *Hedadura*: Errore hori egiten duen ikasle-kopurua.

Gogoan hartu erabakigarria dela irakaslearen egitekoa erroreen erabilera didaktikoari dago-kionez, erroreak eragin positiboa eduki baitezake ikaskuntz prozesuan.

✓ Ikaskuntzan ikaslearen motibazioa eta inplikazioa ezinbesteko direnez gero, talde osoarentzako azalpenak ahalik eta laburren emango ditu irakasleak. Saioan proposatutako eginkizunek ordezkatuko dituzte irakaslearen azalpenak, neurri handi batean. Horrela, irakasleak taldeei lagunduko die, eginkizunak gauzatzeko prozesuaren jarraipena egingo du, hanka non sartzen duten edo okerra egiteko arriskurik gehien non duten aztertuko ditu, eta ariketa edo jarduera berriak sortuko ditu.

✓ Bakarkako lana talde-lanarekin osatu. Taldean lan eginez gero, modulukideek elkarri lagunduko diote eta akatsen gaineko hausnarketa egingo dute guztiek. Gainera, normalean, ikasleak ongi hartzen ditu ikaskideen aldetik jasotako informazio eta iradokizunak.

## 2 Moduluan zehar. Saioen garapena.

✓ Saioarean garapenean egindako ebaluazio jarraituaren ondorioz, gai izango gara aldian-aldian beharko diren ataza edo jarduera berriak sortzeko. Jarduerak ikasleei lanean hasteko laguntza emango diete; ez dira, beraz, ikasleek beren kabuz egin ditzaten, ezta azalpenak ordezkatzeko edo irakaslea zabarkerian murgil dadin ere.

# Sarrera

✓ Egiaztatu ea atazetan oinarritutako lan egiteko era hau ikasleen gustukoa den, ea horrela motibatzen diren. Kontrako iritziak aurkituz gero, jakin zein ikasle dagoen motibatuen eta zein ez, eta zergatik.

Zer ikasi baino *nola* ikasi da garrantzizkoena gaur egun. Metodologi eredu berri honek prozesuan du oinarri, hau da, ikasgelan nola lan egiten den. Ikaskuntzako elementurik nagusienak laneko atazak dira, eta hizkuntz egiturak eta funtzioak bigarren mailara igaro dira. Atazak eginez lortu nahi dira hizkuntz helburuak; izan ere, atazak egiteko prozesuaren ondorioz emaitzaren bat lortuko dugu edo arazoren bat konponduko, eguneroko bizitzan gertatzen den modura.

Prozesuaren ikuspegiak eta atazetan oinarritutako ikaskuntza-irakaskuntzak malgutasun handia ematen die, bai ikasleei, bai irakasleei, ikaskuntz helburu orokor batzuetatik abiatzen baitira, eta ez hizkuntzaren alderdi zehatz batzuetatik. Horrela, elkarreraginezko egoera batean, ikasleek ikasteko biderik egokiena negoziatzeko gaitasuna izango dute, nor bere modu eta estrategiekkin.

Ikaskuntzaren emaitza ezin da aurreikusi, ikaslearen, atazaren beraren eta atazaren inguruan sorturiko testuinguruaren elkarreraginaren emaitza delako. Horregatik, ikaskuntza ikasle-motaren arabera izango da.

Behatu ea *zein ikaslek* ateratzen dioten *etekinik handiena* horrela lan egiteari, eta zeinek txikiena. Komeni zaigu guztien informazioa eskuratzea, programazioa egokitu eta arrakasta lortzeko. Nolakoak dira etekinik handiena ateratzen duten ikasleak, eta, era berean, nolakoak txikiena lortzen dutenak?

✓ Kontuan izan *aurreikusitako denboraren* eta *erabilitakoaren* arteko aldea. Arazoa sarritan den-dena egiteko denborarik ezak sortzen du. Horregatik, erabaki saioan zer egin eta beste baterako zer utzi.

### 3 Ondoren. Berraztertu, eta hobetu.

✓ Berraztertu erabilitako denbora, eta baloratu lanak eskatzen duen bestekoa den, edo zeozer luzatu edo laburtu behar ote den.

✓ Hurrengo galdera hauek egin:

- a) zer lortu duten ikaslerik aurreratuenek, eta zer atzeratuenek.
- b) ikasleak zein neurritan asebate dituen egindako lanak; ikasleen motibazio-mailari ere erreparatu.
- c) zein eginkizun nahiago izan duten.

✓ Saioa burutzeko izan diren arazoen gaineko hausnarketa egin: zein diren akatsik nabarmenenak eta usuenak, edota zein diren behin eta berriro egindako hankasartzeak, nahiz eta oker horien gainean lan eginak egon.

✓ Saioa berriro eman beharko bazenu, zer aldatuko zenuke?

## 3.2.- KONTUAN HARTZEKO BESTE IRIZPIDE BATZUK

### **Nola landu gramatika saioetako ataza edo eginkizunen bidez?**

Helbururik behinena ikaskuntza sortzailea sustatzea da, kide guztien arteko hausnarketa oinarri. Ahalegindu gramatikazko azalpen dogmatikoak saihesten, gehienetan ikaslea bera konturatuko baita ikaskuntza-prozesuan zehar zalantzan duen eduki horren ingurukoez. Sustatu ikasleak banakoan ematen diren edukiak elkarrizketatu eta hausnartzera, eta, behar izanez gero, eduki eta adibide gehiago eman.

### **Nola aztertu gramatikazko edukiak?**

Ezinbestekoak dira ikuspegi testuala eta azterketa pragmatikoa, hau da, testuingururik gabe ez dago ezer aztertzerik komunikazio-prozesuetan. Moduluan azaltzen diren adibideek testuinguru argia izango dute, elkarrizketa edo egoera ondo mugatuak baliatuko ditugu.

Saioetako eginkizunetan ikusiko duzun bezala, hizkuntzaren alderdi testualari dagokionez, azalpenezko eta argudiozko testuak proposatu nahi izan ditugu, batez ere.

### **Sustatu eginkizun komunikatiboak**

Oso eraginkorra da komunikazioa sustatzeko eginkizunak bideratzea, ikasleak errazago jabetzen baitira edukiez, eta, gainera, dinamikoagoa egiten da moduluko lana.

Saioan murgildu aurretik, oso egokia izaten da moduluko partaide edo testu batek ematen duen informazioa aurkeztea (Karmenek uste du... , egileak dio...), eta, gero, informazio horren ondorioz modulukideek ematen duten erantzuna baliatzea (ez dut gustuko... , ikaragarria da... , nire ustez...).

### **Ikaslearen autonomia**

Moduluko partaideak dituen ikasteko estrategiak garatu nahi ditugu, prozesu inductibo eta deductiboen bitartez. Horretarako, eginkizunetan zehaztutakoak gauzatu. Ikasleek taldean lan egin behar dute, hau da, behatu, hausnartu eta eztabaidatu egin behar dute. Saia zaitez jabe daitezen ikasprozesuaren gorabeheraz. Sustatu horrela lan egiteko moduak eztabaidatze-ra. Ikasteko estrategiei dagokienez, lagun izaiezu nork bere erabakiak har ditzan.

Garrantzizkoa da, beraz, modulukideak autonomiara sustatzea, hau da, ikasleei estrategiarik emankorrenak bilatzen lagunduko diegu, abian jar ditzaten euskara-maila hobetzeko. Proposatutako egitekoen gainean hainbat hausnarketa egingo ditugu, ikasleek ondorio batzuk atera ditzaten, eguneroko bizitzan ikasi dutenari etekina ateratzeko.

### **Ikaslea da abiapuntua**

Ikasleen behar, interes eta nahietatik abiatu beti. Bestalde, oso argi eduki zer lortu nahi duzun esku artean duzun materialaren bidez. Izan ere, zuk gauzak argi ikusten ez badituzu, ikasleek nekez jakingo dute zer eta zertarako egin behar duten.

## Irakaslea eta erraztailea

Zentzu zabalean, "ikaskuntzaren erraztailea" zara. Hona hemen egiteko batzuk:

- Era koherente eta egokian koordinatuko duzu ikaskuntza-prozesua.
- Ariketei ekin aurretik, giroa sortu.
- Elkarreragina sustatu beti, den-dena adosten ahalegindu.
- Ez duzu zuzenean parte hartuko, batez ere, jarioasuna lantzeko ariketetan.
- Jakina, horrelakoetan aholkulari edo laguntzaile izango zara. Gero, agian, puntu ahulak zuzentasuna lantzeko ariketen bidez jorratuko dituzu.
- Hortaz, betiko irakaslearen rola ere izan dezakezu; batez ere, hizkuntz formak aurkeztean eta zuzentasuna lantzeko ariketak kontrolatzean eta zuzentzean.
- Taldekidearen rola ere izan dezakezu.
- Amaitzean, feedbacka sustatu, bai azken xedearen gainekoa, bai gramatikazko eragozpenei buruzkoa.

## 3.- BIBLIOGRAFIA

**Aznar eta al.:** *"Coherencia textual y lectura"*. Barcelona: Horsori, 1991.

**Bettelhem, Bruno:** *"Psicoanálisis de los cuentos de hadas"*. Edit. Crítica. Barcelona, 1994.

**Bronckart eta al.:** *"Hizkuntzaren psikopedagogia"*: Labayru, 1990.

**Bru, Bernardette:** *"Cómo improvisar cuentos"*. Aula Práctica. Edic. CEAC.

**Cenoz, Jasone:** *"Hutsegiteen inguruko zenbait ohar"*. ZUTABE, 11. zk., 1986.

**Cone Bryant, S.:** *"El arte de contar cuentos"*. Editorial Nova Terra. Barcelona, 1976.

**Cooper J.C.:** *"Cuentos de hadas. Alegorias de los mundos infantiles"*. Edit. Sirio. Malaga, 1986.

**De la Torre, S.:** *"Cómo aprender de los errores en la enseñanza de la lengua"*. Escuela Española, 1996.

**Esnaol, Pello:** *"Ahozko euskara"*. HABE aldizkaria, 103-118.

**Euskaldunon Egunkaria:** *"Idaztarauak. Lexikoa eta gramatika"*. Euskaldunon Egunkariaren estilo-liburua. Andoain, 1995.

**Euskaltzaindia:** "Okerrak zuzenduz" Euskaltzaindia. Gramatika-batzordea. Leioa, 1994.

**Gili Gaya:** "Introducción al lenguaje infantil". Editorial Vox.

**Igerabide, J.C.:** "Bularretik mintzora (Haurra, ahozkotasuna eta literatura)" Erein. Donostia, 1993.

**Jean, Georges:** "El poder de los cuentos". Colección Dejadles leer. Pirene. Barcelona, 1988.

**Khemir, Nacer:** "El cuento de los contadores de cuentos".

**Lertxundi, Anjel:** "Haur literaturaz". Erein. Iturriaga saila, 1982.

**Nunan, D.:** "Designing Tasks for the Communicative Classroom". Cambridge University Press, 1989.

**Pelegrin, A.:** "La aventura de oír". Edit. Cincel. Madrid, 1984.

**Propp, V.:** "Las raíces históricas de los cuentos". Edit. Fundamentos. Madrid, 1979.

**Propp, Vladimir:** "Morfología del cuento". Editorial Fundamentos, Madrid, 1977.

**Rodari, Gianni:** "Grámatica de la fantasía". Editorial Reforma de la escuela. Madrid, 1979.

**Rodari, Gianni:** "Ejercicios de fantasía". Aliorna. Barcelona, 1987.

**Salaburu, Pello; Kintana, Xabier:** "Euskara hobean hobe". UPV/EHU Argitarapen Zerbitzua. Bilbo, 1984.

**Ventura, Nuria:** "Cuentacuentos". Siglo veintiuno editores.

**Zalbide, Mikel:** "Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide" EUSKARA aldizkaria, 39.zk. Bilbo, 1994.

**Zubimendi, J. Ramon; Esnal, Pello:** "Idazkera-liburua" Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, 1993.

**Zuccherini, Renzo:** "Cómo educar la comunicación oral". Edic. CEAC.

# 2

## Saiokak

s a i 1 o a

### 1 jarduera

Ikasleei honako hau adierazi:

Edozein familiatan gerta daitezkeen hiru egoera ikusiko dituzue bideoz. Berauetan, ipuinak nola kontatzen dituzten adierazten da. Egoera bakoitzaren ondoren berorri buruzko galderak izango dituzue erantzuteko.

A, B eta C egoeren gidoiak eranskinetan dituzue (*Ikus. 1.1.1. eranskina*)

1. Bideoz hiru egoera ikusi ondoren, erantzun itzazue ondorengo galderak:

## A EGOERA



Zein izan da aitaren lehenengo erreakzioa, alabak ipuin bat kontatzeko eskatu dionean?



Zergatik uste duzu izan duela erreakzio hori?



Nolako ipuina kontatu du amak?





Zergatik harritu da ama, umeak ipuin hori kontatzea nahi duela eskatu dionean?





Zergatik uste duzu nahi duela umeak horrelako ipuina kontatzea?


**B EGOERA**

 Zer dela eta bururatu zaio semeari ipuina kontatzeko eskatzea?


 Zergatik harritu da lehengusua?


 Zein izan da osabaren erreakzioa?


 Zergatik uste duzu izan duela erreakzio hori?


 Nolako ipuina kontatu du aitak?

**C EGOERA**

 Zergatik eskatu diote amari ipuina kontatzeko?

 Noiz kontatu nahi du amak ipuina? Zergatik?

 Zergatik irakurtzen du ipuina, eta ez kontatu?

 Zergatik nahi du senide bakoitzak bere ipuina irakurtzea?

 Zergatik aukeratu du amak alabarena?

2. Adieraz dezala ikasle bakoitzak ipuin horietako norekin eta zertan egiten duen bat gehien.
3. Ondorengo fitxaren galderak oinarri hartuta, azter ditzala bakoitzak bere etxeko enohiturak (idatzi gabe):



### Zure etxeko egoera:

- Nork kontaktzen ditu ipuinak?
- Zergatik?
- Noiz?
- Nolako ipuinak?
- Zergatik?
- Beste era bateko egoera izatea gustatuko al litzaizuke? Nolakoa?



4. Fitxa horietan adierazitakoak komenta ditzatela beren aldamenekoarekin.
5. Egin dezala bakoitzak bere ondokoaren aurkezpena: zer familia duen; etxean euskaraz egiten duten; ipuin-kontaktetari dagokionez, zer ohiturak dituzten; ohitura horiekin konforme dagoen ala beste era batekoak gustatuko litzaizkiokeen, etabar.
6. Jarduera honi amaiera emateko eta aurreko puntuarekin lotuz, ikasle bakoitzak adieraz dezala zein diren moduluaren inguruan ekarri dituen espektatibak.

**Oharra:** Irakasleak nahi izanez gero, B egoerako partaide batek egiten dituen bi hutsegiteak erabil ditzake, ikasleei hutsegiteen zuzenketa-ariketa bat proposatzeko.

## 2 jarduera

1. Binaka jarrita adieraz ditzatela, beren iritziz, zer lortzen duten umeek ipuinen bidez. Horretarako, jar ditzatela lehenengo laukian 2 gauzarik garrantzitsuenak, bigarrenean beste bi garrantzitsu eta, hirugarrenean, garrantzirik ez dutela pentsatzen duten beste bi.
2. Ondoren, ipuin-idazle bati ( Juan Kruz Igerabide) egindako elkarrizketa ikusentzungo dutela esan. (*Ikus. 1.2.1. eranskina*)
3. Elkarrizketatuaren arabera ipuinak zer-nolako baloreak dituen azter ditzatela, eta, entzun ahala, aldera ditzatela beraiek lehenago adierazitakoekin.
4. Gero, azal ditzatela besteen aurrean, alderaketaren ondorengo emaitzak.
5. Ondoren, irakasleak, laburpen gisa, ipuinen balore nagusien zerrenda banatuko die ikasleei, beren kuadernoan jaso dezaten.
6. **AZKEN JARDUERA**ren aurkezpena.

Ipuinen bidez lortzen diren balore horiek guztiak transmititzen ikas-teko, azken eguneko eginkizunera-ko prestatuko direla adierazi; hau da, ipuin-kontaktaren alderdi ezberdinei erreparatuz, umeen aurrean ipuin batzuk egoki kontatzea.

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Lehenengo saio honi buruzko iritzia ematerakoan, modulu honetan aurreikusten den talde-dinamikari buruzko gogoeta txiki bat egingo da, honako hau azpimarratuz:

Lehenengo saio honetan egin dituzten ariketetan bezala, ez direla beti bakarka arituko: hasieran zerbait banaka egingo dutela, eta, gero, binaka-launaka arituko direla, eta, bukaeran, denok elkarrekin. Bide batez, galde dakieke ea orain artekoan nola sentitu diren lan egiteko modu horrekin.


1. Horretarako, idatz ditzala bakoitzak bere liburuskan izan dituen bi sentrazio.
2. Gero ideia-jasa teknikaren bitartez, adieraz ditzala bakoitzak bere sentrazioak.
3. Denen artean komentatu adierazitakoak.

Saioari amaiera emateko, adieraz dezatela idatziz ikasleek lehenengo saio honi buruz duten iritzia.

### 3 jarduera

Lau laguni egindako inkesta eskainiko zaie. Ikusentzun dezatela, taldeka, zer dioten.

Galderak ondorengo hirurak badira ere, erantzunak bakarrik entzungo dira grabazioan (*Ikus. 2.3.1. eranskina*). Ikasleek, beraz, erantzunak entzunda asmatu beharko dituzte galderak. Hiru dira:



1. Galdera bakoitzari emandako erantzunak entzunda, asma dezatela zein den galdera.
2. Lagun horiek esandakoa entzun ondoren, pentsa dezala bakoitzak zer erantzungo lukeen, honelako galderarik egingo baliote.
3. Bakoitzak bila ditzala gelan bereak bezalako erantzunak eman dituztenak, eta elkar daitezela talde batean.
4. Bukatzeko, adieraz ditzatela beren iritziak besteen aurrean.

Ondoren gogorarazi ikasleei, ipuin-idazleari egindako elkarrizketan adierazi bezala, ipuinen bidez hizkuntzaz gain, munduaren ezagutza ere transmititzen dela. Esate baterako, animalien mundua da euskal ipuinetan askotan azaltzen den gaia. Galdetu ea zer dakiten hortaz.

Zein animalia ezagutzen dituzten, ba al dakiten zer esaten den bakoitzari buruz euskal ipuinetan, etabar.

## 5. Bakoitzak lotu ditzala emandako animala izenak eta dagozkien testuak.

<b>Mandoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● ..... begi bakarreko sugea izanik, eta ..... ere begi bat baizik ez, biak konpondu omen ziren aldizka elkarri begia uzten joateko. .... berea utzi bai baina, ..... ez inoiz itzuli. Geroztik itsua da .....</li> </ul>
<b>Azeria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● ..... ba omen zituen hasieran begiak. Begiak bai eta buztanik ez. ...., berriz, buztana bai eta begiak falta. .... ezin omen zituen lurpean begiak baliatu, eta ..... buztanaren truke eman zizkion. Geroztik ..... buztana badu, eta ..... bi begi.</li> </ul>
<b>Satorra eta igela</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskal Herriko ipuinetan animaliarik argiena. Begi biziak, sudur ona, hortz zorrotzak eta hanka arinak.</li> </ul>
<b>Urretxindorra eta zirauna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Izen txarra du. Latza, zakarra eta kaskamakurra: uste ez delarik ostikoa.</li> </ul>
<b>Txantxangorria eta kukuia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Haragizaleak dira eta biak lapurrak. .... agintzen du lurraren gainean, baina ..... da nagusi airean.</li> </ul>
<b>Otsoa eta mirua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● ..... alferra da. Zazpi urtez ibili omen zen eskolan eta kuku abesten bakarrik ikasi omen zuen. Ez daki umeak ateratzen ere eta bestek hazten dizkio, txantxangorriari utziz arraultzak.</li> </ul>
<b>Hartza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Abere guztien artean izukor eta beldurtia atera da ..... . Txikiek eta handiek ikaratzen dute.</li> </ul>
<b>Erbia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Garai batean baziren ..... Euskal Herriko mendietan, baina ez ziren herrira jaisten. Beldurra zioten gizonari.</li> </ul>

## 6. Beren iritziz, animalia horietatik zein diren aipatuenak adieraz dezatela.

## 7. Horietako bakoitza hitz batean deskribatu beharko balute, nolakoa dela esango luketen.

Esate baterako, pertsona bat oso maltzurra dela adierazteko "**Azeria baino maltzurragoa haiz hi**" esan ohi da. Eta ondorengo hauek?

**Arranoa baino** \_\_\_\_\_

**Zorria baino** \_\_\_\_\_

**Ardi zaharra baino** \_\_\_\_\_

**Erbia bezain** \_\_\_\_\_

**Akerraren adarra baino** \_\_\_\_\_

**Barea baino** \_\_\_\_\_

**Harra bezain** \_\_\_\_\_

**Mandoa baino** \_\_\_\_\_

8. Ba al dakizue animaliek ere ez dutela berdin hitz egiten hizkuntza guztietan?

◇ **Nola egiten du oilarrak euskaraz?** \_\_\_\_\_

◇ **Eta txakur txikiak?** \_\_\_\_\_

◇ **Eta txerri txikiak?** \_\_\_\_\_

◇ **Eta oilo lokak?** \_\_\_\_\_

◇ **Eta igelak?** \_\_\_\_\_

◇ **Eta zaldiak?** \_\_\_\_\_



9. Animalia bakoitzaren "mintzoak" ere badu bere izena.



Behiak egiten duenari? _____	Eta ardiak? _____
Eta otsoak egiten duenari? _____	Eta txoriak? _____
Eta txerriak? _____	Eta astoak? _____
Eta katuak? _____	Eta zakurrak? _____
Eta zaldiak? _____	Eta antzarak? _____
Eta lehoiak? _____	Eta oiloak? _____

10. Egindako lanaren berri eman dezatela talde osoan.

**Oharra:** Erantzunak 2.3.2. *eranskinean* adierazten dira.

## 4 jarduera

Ondoren, honako hau adierazi ikasleei:

Ipuinen bidez hizkuntza ere transmititzen dugunez, komeni da berau zuzena eta egokia izatea. Hori dela eta, modulu honetan ipuinak egoki kontatzeko behar diren osagaiak eta teknikak ikasteaz gain, erabiltzen dugun euskara-motari ere erreparatuko diogu.

Zer irizten diozue zeuen euskaraz hitz egiteko moduari? Hutsegiterik egiten al duzue? Dakizuenez, hizkuntza bakoitzak baditu bere esaldi eginak, esamoldeak, sentimenduak eta esperientziak adierazteko hiztegi propioa eta, hitzez hitz itzuli ezin daitezkeenak.

## 1. Nola adieraziko zenituzkete, esate baterako, honako esaldi hauek?

Jar daitezela hiru taldetan, eta talde bakoitzari bosna esaldi eman fitxa banatan. Hiru fitzak behar bezala beteta daudenean, ikasle bakoitzak bere liburuskan itsatsiko ditu, horretarako adierazten diren laukietan.

## A fitxa

- 1.- Pasar un mal trance: → .....
- 2.- ..... → - Arnas-estuka etorri.
- 3.- Estar muy enamorado: → .....
- 4.- ..... → - Orpoz orpo joan.
- 5.- Picotero, soplón: → .....

## B fitxa

- 6.- ..... → - Izerdi patsetan.
- 7.- Estar estupendamente → .....
- 8.- ..... → - Leku onean sartuko zara!
- 9.- Qué chollo! → .....
- 10.- ..... → - Egon hortan!

## C fitxa

- 11.- Lo que hay que ver: → .....
- 12.- ..... → - Zerri goseak ezkurra amets.
- 13.- Dejar con un palmo en las narices: → .....
- 14.- ..... → - Nereak egin du.
- 15.- Pasaba el tiempo y... → .....

## 2. Beste taldeetakoekin elkartu, eta osa dezatela.

**Oharra:** Aurreko jardueraren erantzunak 2.4.1. eranskinean adierazten dira.

3. Egin berri duten ariketa hori adibide txiki bat izan dela kontuan izanda, galdetu ea zer moduz moldatzen diren bere seme-alabei ipuina kontatzerakoan. Erantzun diezaietela bakarka ondorengo galderei.

<b>1 Beti</b>	<b>2 Sarritan</b>
<b>3 Gutxitan</b>	<b>4 Inoiz ez</b>

● **Erdaraz ahoz jasotako ipuinak gogoratu eta,**

- bere horretan, erdaraz kontatzen ditut
- gogoratu ahala itzuli egiten ditut
- aldeztatik euskaraz nola kontatu prestatzen dut
- normalean ez dut erdaraz jasotakorik kontatzen, ez naiz moldatzen

● **Euskaraz ahoz jasotako ipuinak gogoratu eta,**

- gogoratu ahala kontatu egiten ditut
- aldeztatik euskaraz nola kontatu prestatzen dut

● **Erdarazko ipuinak hartzen ditut eta,**

- irakurri ahala itzuli egiten ditut
- aldeztatik irakurtzen ditut eta gero nire eran kontatzen ditut
- aldeztatik euskaraz nola kontatu prestatzen dut
- normalean ez dut erdarazkorik erabiltzen, ez naiz moldatzen
- ez diot testuari kasurik egiten, marrazkiei jarraituz kontatzen ditut

● **Euskarazko ipuinak hartzen ditut eta,**

- bere horretan irakurtzen ditut
- testua abiapuntu hartu eta gero nire eran kontatzen dut
- itzulpena baldin bada, nire eran kontatzen ditut
- itzulpena bada, aldeztatik prestatzen dut, egokiago kontatzeko
- euskara egokia ez bada, testua ikusi ahala egokitu egiten dut
- euskara egokia ez bada, nola kontatu aldeztatik prestatzen dut
- testua abiapuntu hartu eta gero osatzen joaten naiz

4. Emandako erantzunak komenta ditzatela aldamenekoekin, eta, gero, talde osoan irakaslearekin.

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Saioari bukaera emateko, ikasleek adieraz dezatela saioari buruz duten iritzia.

5 **jarduera**

Ikasleei adierazi badirela pertsona batzuk esaten dutenak oraingo euskara batu hau ez dutela ulertzen eta nahiago dutela "beren euskaran" egin. Aldiz, badirela beste batzuk, euskara batuan hitz egin behar dela diotenak, denok elkar ulertuko badugu.

1. Galdetu zein den bere iritzia. Ea beren ustez, bata ala bestea aukeratu beharra dagoen, ala badau den une jakin batzuk euskalkia erabiltzeko eta beste batzuk batuan aritzeko.
2. Elkar daitezela talde batean bietako bat erabiltzearen aldekoak, eta beste batean unearen arabera bata edo bestea erabiltzearen aldekoak. Eta arrazoitu dezatela.
3. Entzun ditzatela arretaz ondorengo bi ipuinok. Bideoz grabaturik ikusentzungo dituzte: bata batuan eta bestea euskalkiren batean; gipuzkeraz nahiz bizkaieraz. Bukaeran, erantzun diezaietela galdera hauei: Bietatik zeinekin egiten duzu bat? Zein da zure etxeko ohitura?

**Oharra:** Gipuzkeraz eta bizkaieraz kontatzen diren ipuinak luze samarrak dira. Jarduera egiteko, berez, ez leudeke osorik entzun beharrik, zati bat entzunda nahikoa litzateke. Dena den, emailearen esku geratzen da erabaki hori.

4. Batuan ala euskalkian kontatu, sumatzen al duzu alderik? Zertan?

\* Ipuinak batuan nahiz euskalkian kontatu, garrantzitsuena ahozkoaren ezaugarriez baliatzea dela esan.

\* Horren adierazgarri hemen dituzue bi ipuinen testua. (*Ikus. 3.5.1.eranskinean ipuina batuan eta 3.5.2.ean ipuina euskalkian*)


5. Jar daitezela hirunaka eta azpimarra ditzatela, beraien ustez, hitz egiten dugunean erabiltzen ditugun ezaugarri horiek.

**Oharra:** Ipuinen zati bat aztertzea nahikoa da.

6. Komentatu beste ikaskideekin, eta denon artean. Ahozko euskararen ezaugarrien zerrenda bat osatu behar dute.

## 6 jarduera

1. Oraingoan, andereño batek kontaturiko ipuin bat ikusentzugo duzue. Errepara iezaiozue kontatzeko moduari. Lehenengo ikustaldian ahotsik gabe ikusiko duzue, eta ondorengo hiru osa gaietan deigarriena adierazi:



Ikusi ondoren, ideia-jasa teknikaren bitartez, esandakoak jasoko ditu irakasleak ikasleei adierazteko.

**Oharra:** Ipuin honen transkripzioa ikus. 3.6.1. *eranskinean*.

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Saioari amaiera emateko ikasle bakoitzak adieraz dezala saioari buruzko iritzia.



## 6 jardueraren jarraipena

Bigarren ikustaldirako lau taldetan banatu. Talde bakoitzak puntu bat aztertuko du:



1. Ipuinaren gaia zein den.
2. Ipuina bera nola hasten duen (girotze-modua) eta nola bukatzen.
3. Umeen arretari eusteko zein baliabide erabiltzen dituen.
4. Ahotsa eta gorputza nola erabiltzen dituen.

2. Taldeka, egokitu zaien osagai horretan atentzioa eman dieten xehetasunak elkarri kontatu, eta dagokien fitxa bete dezatela.
3. Talde bakoitzak bere fitxa aurkeztuko du besteen aurrean.
4. Taldeek beren aurkezpena egin ahala, gainontzeko ikaskideen iritzia ere jasoko dute, eta alderatuko.
5. Irakasleak, ondoren, puntu bakoitzean adosturikoa jasoko du, eta laburpen gisa aurkeztuko die.
6. Laburpen hori eskuetan dutela, berriro ikusentzungo dute ipuina.

### SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Bukatzeko, ikasleek adieraz dezatela besteen aurrean saioari buruzko iritzia.

7 **jarduera**

Ikasleei esan ipuinak modu askotara konta daitezkeela, eta baita baliabide ezberdinak erabili ere.

1. Ondoren dituzun baliabideetatik aukera itzazu zerorrek erabilitako hiru.

<input type="checkbox"/> <b>Marraskia</b> <input type="checkbox"/> <b>Irudia eta testua dituen liburua</b> <input type="checkbox"/> <b>Musika-tresna bat</b> <input type="checkbox"/> <b>Eskuko linterna</b> <input type="checkbox"/> <b>Txotxongiloa</b> <input type="checkbox"/> <b>Batere ez</b>
--



<input type="checkbox"/> <b>Irudi hutseko liburua</b> <input type="checkbox"/> <b>Eskuak, behatzak</b> <input type="checkbox"/> <b>Sonbreroa, txapela</b> <input type="checkbox"/> <b>Jantzi bat</b> <input type="checkbox"/> <b>Aurpegia, begiak</b> <input type="checkbox"/> <b>Besteren bat</b>
---

Orain Pello Añorga ipuin-kontalariak ipuinak kontatzeko dauden baliabide batzuk erakutsiko ditu, eta adibideak jarriko bideo-grabazio baten bidez. Entzun zer dioen.

**Oharra:** Pello Añorgaren saioan baliabide asko eskaintzen dira. Emailearen esku geratzen da horietako zeintzuk erabili. Ikus. baliabide hauen transkripzioa 5.7.1. *eranskinean.*

2. Gogoratu hasieran zerorrek aipatu dituzun baliabideak. Bat al datoz kontalariak esandakoekin?
3. Alderik ikusten al duzu baliabide bat ala beste bat erabili? Zertan? Pentsatu, esate baterako, zuk erabiltzen dituzun baliabideetan. Gerta daiteke, era berean, baliabide bera era ezberdinetan erabiltzea. Zein da zure esperientzia?
4. Komenta dezatela beste ikaskideekin.

Baliabide erabilienetako bat hartuko dugu, eta, berau aztertzeko, bideo-grabazio bat ikusiko dugu. Bertan, kontalariak irudia eta testua dituen ipuin bat kontatuko du.

**Oharra:** Jarduera honetarako bi ipuin eskaintzen dira aukeran. Emailearen esku geratzen da bata ala bestea erabili. Ipuin hauen transkripzioak ikus. 5.8.1. eta 5.8.2. eranskinetan.

1. Ipuina entzun ondoren, jar dezatela arreta puntu hauetan:

Ipuin hori zein adin-moduko umerentzat dela esango zenuke?

Nolakoak dira ipuineko irudiak: xeheak, adierazkorrak?  
Ematen al dute hitz egiteko nahikoa gai?

Zer-nolako lotura dago irudien eta kontalariak kontatu duen istorioaren artean?

Ipuineko irudiek ematen al dute istorio ezberdinak kontatzeko biderik?



2. Launaka jarri, eta adierazi diezaiotela elkarri euren iritzia.

3. Daukaten iritzia adieraz diezaiotela talde osoari.

✓ Adin-modua. Zergatik?

✓ Nolako hizpidea ematen duten irudiek.

✓ Nolako lotura dagoen irudien eta kontaturiko istorioaren artean.

✓ Irudiek istorio ezberdinak kontatzeko bide ematen duten.

4. Gogoratu baliabide honi buruz lehenago adierazi dituzuen ezaugarriak. Bat al datoz? Zertan? Komentatu zeure aldamenekoarekin.

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Saioari amaiera emateko, adieraz dezala bakoitzak beroni buruz duen iritzia.

## 9 jarduera

Hainbat pertsonak, ipuin bat aukeratzekoan, istorioari ez ezik, irudien estetikakari ere begiratzen diote, ipuin hori kontatu ala ez erabakitzeko.

1. Eta, zure iritziz, ba al du garrantzirik irudien nolakoak? Zeure seme-alaben izaera kontuan izanda, baztertuko al zenuke ipuinen bat irudi-motarengatik? Ea, ikusi ondorengo irudiak, eta adierazi zer irizten diezun.

Bideoaren laguntzaz, zenbait ipuini dagozkien irudiak aurkeztuko dira, eta, banan-banan, horiei buruzko iritzia emango dute.

Bestalde, edozein baliabide erabiltzen dugula ere, bada osagai bat ezinbesteko dena: hitzak ez diren soinuak. Soinu horien eginkizuna kontaketa girotzea eta, aldi berean, zerbait deskribatzea da. Ekaitza deskribatzean, esaterako, trumoiaren, olatuen eta haizearen hotsak entzuten badira, entzulearen irudimena piztu egiten da, eta soinuak "ikusi" egingo ditugu. Soinu horiek ahotsaren bidez adierazteko onomatopeiez baliatzen gara. Onomatopeiazko hitza da naturan gertatzen diren fenomenoen edo gauzen soinuen imitazioz sortzen dena.

Esate baterako, norbait itotzen ari dela adierazteko: **glu-glu-glu** erabiltzen da.



2. Nola adieraziko zenituzke, onomatopeiak erabiliz, ondorengo soinuok. Hirunaka jarrita, lotu itzazue beren kideekin:

1. Makilaz jo	<input type="checkbox"/> Blaust
2. Zerbait puskatu	<input type="checkbox"/> Ijiji!!
3. Kolpean erori	<input type="checkbox"/> Dan-dan!
4. Edan	<input type="checkbox"/> Txapla-Txapla
5. Ate joka	<input type="checkbox"/> Dzirt-dzart!
6. Ura irakiten	<input type="checkbox"/> Burrruuun!
7. Derrepente azaldu	<input type="checkbox"/> Zapla!
8. Zarata handiz erori	<input type="checkbox"/> Kliski-klaska
9. Koska egin	<input type="checkbox"/> Brau!
10. Tximistaren argia	<input type="checkbox"/> Prost!
11. Tripetako hotsa	<input type="checkbox"/> Zzzzz!
12. Gezurrezko barrea	<input type="checkbox"/> Draka-draka!
13. Pauso motxak eginez ibili	<input type="checkbox"/> Gur-gur!
14. Masailean jo	<input type="checkbox"/> Bor-bor!
15. Jipoia eman	<input type="checkbox"/> Zanga-zanga
16. Zaldia trotean	<input type="checkbox"/> Krask!
17. Uretan ibili	<input type="checkbox"/> Drausk!
18. Euri ugaria	<input type="checkbox"/> Tipi-tapa!
19. Lehertu	<input type="checkbox"/> Dinbi-danba!
20. Lozorroan	<input type="checkbox"/> Zarra-zarra!
21. Trumoia	<input type="checkbox"/> Buuun!

**Oharra:** Onomatopeien erantzunak 6.9.1. *eranskinean* adierazten dira.

3. Zein dira zuk gehien erabiltzen dituzun onomatopeiak? Eta zein egoeratan?

## 10 jarduera

Ikasle bakoitzak bi ipuin-liburu ekarriko ditu, bere umeei gehien gustatzen zaizkienak, eta adin ezberdinentzakoak (4 urte bitartekoak/4 urtetik gorakoak). Ikasleak bi taldetan banatuko dira, ipuin horiei dagokien adinaren arabera, hain zuzen ere.

1. Jar zaitezte bi taldetan: talde batek 2-4 urteko umeentzako ipuinak aztertuko ditu, eta besteak 4-6 urtekoentzakoak. Taldeka ipuin bana aukeratu, eta besteen aurrean kontatzeko prestatu.

2. Adierazi besteen aurrean zein ipuin aukeratu duzuen eta zergatik, eta nork kontatuko duen.

11 **jarduera**

1. Talde bakoitzeko batek kontatuko du ipuina besteen aurrean. A taldekoek, bien bitartean, ondorengo bi puntuei erreparatuko diete:

✓ Lehenengo ipuinean

1. Gaiari eta honek eman dezakeen hizpideari.
2. Edukien garapenari (hasiera, garapena, bukaera) eta hauek adierazteko egokitasunari.

✓ Bigarren ipuinean

3. Eduki horiei dagozkien soinu-efektuei.
4. Umeen arretari eusteko baliabideei.

B taldekoek, berriz, alderantziz egingo dute.

**Oharra:** Bi ipuin hauek grabatzea komeni da.

2. Ipuin bakoitzaren ondoren, taldekideek elkarren iritziak aldera ditzatela, eta dagozkien fitxak bete.

3. Denon artean komenta dezatela egindako lana.


Ipuina kontatu ez duten ikasleek beren umeei kontatuko diete etxean, eta, hurrengo saioan, zer moduz moldatu diren adieraziko dute.

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Bukatzeko, ikasleek adieraz dezatela gainontzekoen aurrean saioari buruzko iritzia.

# 11 jardueraren ondokoa

Etxean ipuina kontatu dutenetatik gustuen gelditu direnek nola joan zaien adieraziko dute lehenik. Banan-banan aipagarri iruditzen zaizkien alderdi positiboak adieraziko dizkiete beren ikaskideei. Esate baterako:




Ondoren, hain gustura gelditu ez direnetatik ere, norbaitek zerbait aipatu nahi badu, egiteko aukera izango du.

Gainontzekoek, ikasle horien adierazpenak abiapuntu hartuta, beren ikuspuntua adieraziko dute.

# 12 jarduera

Orain adineko pertsona batek kontaturiko ipuina ikusentzuingo dutela esan (*Ikus. 7.12.1 eranskina*), baina, aurretik, bigarren saioan aipatu genituen ahozkoaren ezaugarriak gogoratuko ditugula:



1. Ipuina entzun ahala kontalariak erabiltzen dituen ahozko euskararen ezaugarriei erreparatzeko esan. Guk aipatu ditugunetatik zein erabili dituen eta zer adierazteko.
2. Taldeka jar daitezela eta aldera ditzatela beren iritziak.
3. Aipatu iritziak adieraz ditzatela talde osoaren aurrean.

# 13 jarduera

Bideoz guraso bati egindako elkarrizketa ikusentzugo dute. Elkarrizketa horretan, beren aurrekoek ipuinak kontatzen zizkieteneko kontuak adieraziko ditu. Bi gurasoren grabaketak daude, bata gipuzkeraz, eta bestea bizkaieraz, komeni dena baliatu ahal izateko.

Hona hemen, guraso horiei egin genizkien galderak:



1. Askotan entzuten diegu aiton-amonei gaur egun ez dagoela girorik ipuinak eta kontatzeko. Garai batean bai, bazegoela giroa, baita egokiera ere. Zuk, agi denean, txikia zinela ezagutu zenuen giro hura, ezta? Gogoan al duzu nolakoa zen?
2. Nork kontatzen zizkizun ipuinak? Noiz? Non? Zuri bakarrik?
3. Nolakoak ziren?
4. Zuri zein gustatzen zitzaizkizun gehien?
5. Eta zuk kontatu/tzen al dizkiezu seme-alabei ipuin horiek? Eta gustura entzuten al zituzten/dituzte?

**Oharra:** Elkarrizketa horien transkripzioak ikus. 7.13.1. eranskinean.

Guraso hauek diotena aitzakia gisa hartuta, ikasleek beren aurrekoengandik jaso dutenaz eta beren seme-alabei transmititzen dietenaz gogoeta egingo dute.

1. Horretarako ikasle bakoitzak bere zuhaitz genealogikoa egingo du. (Ikus.7.13.2. eranskina).
2. Binaka jarrita eta eranskina eskuetan dutela, bata besteari galderak eginez, bikote-lagunaren familiari buruzko informazioa aterako dute. Era honetan, aiton-amonak, gurasoak, izeba-osabak eta seme-alabak izango dituzte hizpide. Elkarrizketa bideratzeko, galderen gida erabil dezatela.

3. Elkarrizketa horren ondorioz, batak bestearen zuhaitz genealogikoa osa dezatela, belaunaldi bakoitzean transmisioa nola gertatu den bereiziz.
4. Ikasle bakoitzak bikotekidearen berri emango die gainerantzekoei, osatu duten zuhaitz genealogikoa lagun.

Bikotekideen azalpenak kontuan izanda, belaunaldiz belaunaldiko estatistikatxo bat egingo du irakasleak ikasleen laguntzaz. Honetarako, ikasleek zuhaitz genealogikoaren eskuinaldeko bi zutabeetan adierazten dituzten emaitzen batura egingo du, eta, jarraian, horren berri emango.

5. Segidan, ateratzen diren emaitzen inguruan hainbat arrazoi azaleratzen ahaleginduko dira elkarrekin.

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Saioari amaiera emateko, ikasle bakoitzak adieraz dezala beroni buruz duen iritzia.

14 **jarduera**

Ikasleak beren aurrekoengandik jasotako ipuin bat gogoratu, eta besteen aurrean kontatzeko prestatzen ahaleginduko dira.

1. Horretarako ikasleek, ideia-jasa teknikaren bitartez, zaharrengandik jaso zituzten ipuinak eta berauen nondik-norakoak adieraziko dituzte hiruzpalau esalditan. Ipuinen izenak esan ahala, irakasleak arbelean idatziko ditu.

**Oharra:** Baldin eta ikasleek beren ume-garaiko ipuinik gogoratuko ez balute, irakasleak prestatu-rik eduki ditzake doenerdi bat kontu zahar edo pasadizo, ikasleek aukeratzeko.

2. Bi taldetan jarrita, aukera dezatela ipuin horietako bat, eta presta dezatela besteen aurrean kontatzeko.

15 **jarduera**

1. Talde bakoitzeko kide batek kontatuko du prestatu-riko ipuina.

**Oharra:** Baldin eta ikasleek beren ume-garaiko ipuinik gogoratuko ez balute, irakasleak prestatu-rik eduki ditzake doenerdi bat kontu zahar edo pasadizo, ikasleek aukeratzeko.

2. Gainontzekoek, bitartean, ondorengo puntuei erreparatu-ko diete taldeka:

- Lehenengo ipuinean:

- Talde batekoek gorputzaren eta ahotsaren erabilerari.
- Beste taldekoek, berriz, ahozko euskararen ezaugarrien erabilerari.

- Bigarren ipuinean, alderantziz.

3. Taldeko kideek elkarren iritziak alderatu, eta dagokien fitxa bete dezatela.

4. Aipatu iritziak talde osoaren aurrean adieraziko dituzte.

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Bukatzeko, adieraz dezatela denen aurrean saioari buruz duten iritzia.

16 **jarduera**

Ipuin ezagunak beste ikuspegi batetik kontatzeko edota erdi-asmatzeko bi joko egingo dituzte.

1. Bi taldetan jarriko dira. Talde bakoitzak ipuin ezagun bat aukeratu, eta, nahi duten eran egokituz, besteen aurrean kontatuko dute.

**A taldeak**, esate baterako, ipuin klasiko bat aukera dezake, eta, ikuspuntua aldatuz, besteen aurrean kontatu. Horretarako, nahi izanez gero, ipuin bat pertsona gaiztoaren ikuspuntutik edo kontatu. Adibidez: "Txokolatzeko etxea" izeneko ipuina sorginak berak konta lezake.

*"Duela urte asko, baso ondoko txokolatzeko etxetxo zoragarri batean bizi nintzen. Goiz batean, haur batzuen ahots eta irriak entzun nituen ..."*

**B taldeari**, berriz, ipuin baten hasiera eman, eta jarraipena eman diezaiotela. Esaterako, 1. saioan B egoeran kontatzen hasten zen ipuinari jarrai diezaiotela. Honako hau zen:

*"Guri orain iruditzen ez bazaigu ere, hasieran gauza guztiak zekiten hizketan: lurrekoek, uretakoek eta airekoek. Landaretan goroldioa zen hitz egiten ez zuen bakarra."*

*Goroldioaz kupiturik hitz egiten erakustera joaten zitzaizkion bere lagunak. Udaberrian ihintza jaisten zen goizean maitasun-hitz politikak esatera. Udako egun beroetan otsoa zuen laguna, eta gainean etzanik ipuinak kontatzen zizkion. Udazkenean hego-haizea etorri, eta muxu ematen zion. Amets epel eta goxoak egiten zituen orduan goroldioak. Neguan elurrak jantzi zuriz estaltzen zuen andregairik politena baino politago egoteko. Baina goroldioak ez zien hitzik esaten; mutu jarraitzen zuen.*

*Nola edo hala erakutsi nahi zioten mintzatzen, baina ezin. Hainbeste ahalegin egin zuten, azkenean ..."*

**Oharra:** Ipuin honen jarraipena *ikus. 9.16.1. eranskinean.*

2. Ipuinak besteen aurrean kontatzerakoan taldeko kide batek hasiera eman, eta txandan-txandan denen artean kontatuko dute zatika-zatika.

## 17 jarduera

Honako hau adierazi ikasleei:

Aspaldiko ipuinak ere, luzatu eta osa daitezke nahi adina, beti berdin kontatu gabe. Horretarako, ideia berriak sortzen eta adierazten ikas dezakezue. Esate baterako, pentsa ezazue ondorengo ipuin horietako bat ari zaretela kontatzen, eta zuen seme-alabak honelako galderak egiten dizkizuela. Zer esango zeniekete?

1. Irakasleak lau ipuin ezaguni buruzko galderak edukiko ditu prestatuta beste horrenbeste fitxatan. Taldeka jarrita, bakoitzari berea emango dio, galderak erantzun ditzan.



### 1. Tartalo

- Zer dira dolmenak?
- Zergatik du Tartalok begi bakar ra?
- Zer da korderik gabe gelditzea?
- Nolatan hitz egiten zuen eraztunak?
- Zer da burruntzia?
- Zertarako ditu Tartalok ardi-larruak txabolan?



### 2. Matias Txistu

- Zergatik orrazten du sorginak ilea urrezko orraziaz?
- Zergatik dago sorginduta On Matiasen eskopeta?
- Zer dira esamesak?
- Zein dira galtzagorriak?
- Nora eraman zuen haizeak On Matias apaiza? Sorginarengana?



### 3. Martin Txiki

- Orain ere Aralarko basoetan bizi al dira basajaunak?
- Eta jentilak zergatik bizi ziren kobazuloetan?
- Nola lortu zuten basajaunek garia?
- Ogi zuria janez gero, altuagoa eta indartsuagoa izaten al da?



### 4. Mari Errauskin


- Zer da ahizpaordekoa?
- Zergatik ziren hain gaiztoak ahizpaordekoak Mari Errauskinekin?
- Zergatik egon zitekeen Mari Errauskin gauerdiko hamabiak arte bakarrik?
- Zergatik bukatzen dira ipuinak beti printzea eta printzesa ezkonduz?

2. Galdera horiei erantzuteak ipuina zertan alda zezakeen adieraz dezatela guztion aurrean.

18 **jarduera**

Oraingoan bidez ipuin bat ikusentzugo dutela esan. Ipuin hau asmatua edota erdi-asmatua da. Eta entzuterakoan ondorengo osagaiei erreparatu beharko diete:

1. Jar daitezela lau taldetan, eta talde bakoitzak punturen bati erreparatuko dio:



2. Talde osoa elkartu, eta elkarren berri eman diezaiotela.


**Oharra:** Jarduera honetarako, bi ipuin eskaintzen dira aukeran. Emailearen esku geratzen da bata zein bestea erabiltzea. Ipuin hauen transkripzioak ikus. *9.18.1 eta 9.18.2 eranski - netan.*

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Saioa amaitzeko, ikasle bakoitzak adieraz dezala beroni buruz duen iritzia.

19 **jarduera**

1. Bi taldetan jarri, eta talde bakoitzak ipuin bat asmatuko du. Ipuin bat asmatzeko, noski, zenbait baliabide kontuan hartzea komeni dela esan (*Ikus. 10.19.1 eranskina*); hala nola:



Ipuina asmatzen hasi aurretik, beraz, norentzako izango den erabaki dezatela. Horretarako, beren seme-alaben arteko norbait aukeratu, eta berorri dagozkion ezaugarriak kontuan hartuta, oraindik orain aipaturiko osagaiak egokituko dizkiote.

"Esate baterako, pentsa ezazue Iratiko basoan egon zaretela aste bukaera batean, eta, hango gertakizun bat aitzakia hartuta, baso batean gertatzen den abentura bat kontatzen duzuela".

2. Talde bakoitzak dena delako ipuina asmatu duenean, presta dezala hurrengo saioan kontatzeko.

**SAIOARI BURUZKO IRITZIA**

Saioari amaiera emateko, adieraz dezatela denen aurrean saio honetan egindakoaz duten iritzia.

# 19 jardueraren jarraipena

1. Ipuina kontatzen duen kide bakoitzak ipuina kontatzeaz gain, zein ume-motarengan pentsatuz prestatu duten adieraziko du (ezaugarri nagusiak, edo, ume jakin batengan pentsatu dutenean, haren ezaugarriak). Gainontzekoek bien bitartean, taldeka, bi punturi erreparatuko diote:

## 1. Ipuina

### A taldea

1. Asmatu duten ipuina, beren ustez, egokia ote den ume-mota horrentzat.

### B taldea

2. Ipuina kontatzerakoan erabili duen euskararen zuzentasunari/egokitasunari.

## 2. Ipuina

### A taldea

1. Ipuina kontatzerakoan erabili duen euskararen zuzentasunari/egokitasunari.

### B taldea

2. Asmatu duten ipuina, beren ustez, egokia ote den ume-mota horrentzat.

**Oharra:** Bi ipuin horiek ere grabatzea komeni da.

2. Ipuin bakoitzaren ondoren talde bakoitzak adieraziko du, besteen aurrean, bere aztergaiari buruzko iritzia.

# 20 jarduera

Moduluan kontaturiko ipuinik egokienak aukeratuko dituzte ikasleek, onenetik txarrenera zerrendatuz.

IPUINEN IZENAK	IRIZPIDEAK
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mandazaina.</li> <li>2. Txomin ipurdi / San Kristobal pasajerue.</li> <li>3. Hiru antxume eta aztia.</li> <li>4. Barbantxo / Kilkerra.</li> <li>5. Ikasleek ekarritako bi ipuin.</li> <li>6. Sorgina eta andre ederra / Periko Zorritzto.</li> <li>7. Ikasleek beren aurrekoengandik jasotako bi ipuin.</li> <li>8. Ixabel / Tximuen lurraldean</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Umeen adina.</li> <li><input type="checkbox"/> Gaia eta hizpidea.</li> <li><input type="checkbox"/> Ahozko ezaugarriak.</li> <li><input type="checkbox"/> Ipuinen osagaiak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- ipuina girotzeko modua</li> <li>- umeen arreta erakarri eta eusteko modua</li> <li>- ahotsaren eta gorputzaren erabilera</li> </ul> </li> <li><input type="checkbox"/> Irudia eta testuaren arteko lotura.</li> <li><input type="checkbox"/> Onomatopeien erabilera.</li> </ul>

**Oharra:** Saioetan erabiltzen diren ipuin guztiak grabaturik egongo direnez, baten bat gogoratzen ez badute, berrikusi egin dezakete.

1. Jar daitezela bakarka eta gero launaka, eta erabaki dezatela, aipatu irizpideen arabera, zein diren moduluan kontaturiko ipuinik egokienak.
2. Ipuinak aukeratu ondoren, presta ditzatela hurrengo saioan umeen aurrean kontatzeko: zenbat ipuin, zein, nork kontatuko dituen.

## SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Saioari amaiera emateko, adieraz dezatela denen aurrean saioari buruzko iritzia.



## Azken jarduera


1. Aukeratutako ipuinak eskolako umeen aurrean kontatuko dituzte. Beraien esku geratuko da nork eta nola kontatu.
2. Umeek alde egiten dutenean, komenta dezatela denen artean zer moduz joan den saioa.

## Ebaluazioa

Moduluaren ebaluazioa egiteko, ikasleei galdesorta bana banatuko zaie, iritzia eman dezaten. Burutu den moduluaren ezaugarri zehatzak aintzat hartuz antolatu beharko du galdesorta irakasleak (ikasleen ezaugarriak, saioei buruz aldez aurretik jaso diren iritziak, garapenean egin diren egokitzapen eta moldaketak, ...).

Galdesortak honako puntu hauek jaso ditzake:

- Moduluak erantzun egokia eman al die ekarri zenituen espektatibei?
- Moduluaren aurkezpeneko emandako argibideak lagundu al dizu ondorengo hauek ulertzen:
  - Moduluan gauzatu beharreko programa?
  - Programa taxutzeko metodologia?
  - Ebaluazio-modua?
- Lortu al dituzu saio bakoitzean adierazten ziren helburuak?
- Egokiak iruditu al zaizkizu ...



# 12

## saioa

- Argitu al dituzu ipuinak kontatzerakoan zenezkan kezka, zalantza... ?
- Orain hobeto kontatzen al dituzu ipuinak euskaraz? Eta gehiagotan?
- Gauza al zara zeure hizkuntz gaitasunak eta gabeziak zerrendatzeko?
- Ba al duzu orain ipuinak kontatzeko baliabide eta irizpide berririk?
- Egokiak iruditu al zaizkizu, tarteka, moduluaren martxari buruz irakaslearekin izan dituzuen elkarrizketak?
- Eman izan al diozu irakasleari zeure zailtasunen edota iritzien nahiz iradokizunen berri?
- Egokia iruditu al zaizu modulua ebaluatzeko irakaslearekin izandako elkarrizketa?
- Ikasitakoez balorazio positiboa egin al duzu?
- Moduluak asebate al zaitu?
- Moduluan egindako jarduerak izan al dira helburuak lortzeko egokienak?

Ondoren zer ikasi duten egiten eta espero zutenarekin aldera dezatela (1. saioan esandakoaren ildotik).

Bukatzeko, hemendik aurrera gurasoen eta seme-alaben arteko hizketa-gaiak eta guneak ugaritzeko egin dezaketenez eztabaida dezatela.

*"Amaren ahotsak ez ditu ahotan Txano Gorritxo edo Erpurutxo bakarrik: bere buruaz ari zaio umeari (...) eta honi deigarri egiten zaio amaren ahotsa, haren doinuak, bolumena, goxoa dakarkion, kezka guztien korapilo - ak askatzen dizkion, beldurraren manuak uxatzen dituen musika biguna."*

*"Ipuinaren jario motela goxo-goxo bien artean doala, umeak badu aitaz edo amaz bere gisara gozatzeko aukera; aurpegiko imintzio eta berezitasun guztiei begiratuko die, gurasoaren begiak, ahoa, azala ... aztertuko ditu. Entzun, bai, entzuten du, baina pozik asko egongo da arretarik gabe, beste zerbait buruan duela -adibidez, Ipuina lehendik dakienean-".*

*(Gianni Rodari)*

**HABE**

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde

Erakunde Autonomiaduna

